



9 ABR 2019



DECRETO ALCALDÍA\* .....599.....  
ALKATETZA DEKRETUA ZKJA.....

## ALKATETZAREN DEKRETUA

**ESPEDIENTEA** SE-2019-6

Ikusi dira urtero Sanfuentes, Las Carreras eta Gallarta auzoetako zaindarien jaietan barrakak eta atrakzioak jartzeko aurkezten diren eskabideak. Zaindarien jai-garaian aisialdi eta atsedenerako eskaintzen diren alternatibak dira, eta, aintzat hartuta ez dagoela horien gaineko araudirik, ezinbestekoa da instalazioek bete beharreko gutxieneko baldintzak ezartzea segurtasun- eta apaindura-neurriei eta beste neurri batzuei dagokienez. Horrez gain, arautu egin behar da Abanto Zierbenan barraketako atrakzioak jartzea baimentzeko prozedura, hartara bide publikoa okupatzeko dagozkien lizentziak eta aisialdiko jardueretarako baimenak emanez.

Horregatik, oinarritzat hartuko dira jarraian datozen

### ZUZENBIDEKO OINARRIAK

- 10/2015 Legea, abenduaren 23koa, Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jarduerena.
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.
- 33/2003 Legea, azaroaren 3koa, Herri Administrazioen Ondasunei buruzkoa.
- 1372/1986 Errege Dekretua, ekainaren 13koa, Toki Erakundeen Ondasunen Araudia onesten duena.
- 7/1994 euskal Legea, maiatzaren 27koa, Merkataritza Jarduerari buruzkoa.
- Udalaren jabari publikoa okupatzeagatiko tasak arautzen dituen ordenantza.

### EBATZI DUT

**LEHENENGOA.-** Onestea Abanto Zierbenako udalerrian barraketako atrakzioak jartzeko baldintza orokorrak; zehazki, honako hauek:

## DECRETO DE ALCALDIA

**EXPEDIENTE:** SE-2019-6

Vistas las solicitudes de instalación de feria y atracciones que se producen anualmente con motivo de la celebración de las fiestas patronales de los barrios de Sanfuentes, Las Carreras y Gallarta, como alternativa de ocio y esparcimiento con motivo de las diferentes fiestas patronales y teniendo en cuenta la falta de regulación de las mismas, se hace necesario establecer los requisitos mínimos de las instalaciones en cuanto a medidas de seguridad, ornato y otras, así como regular el procedimiento para autorizar la instalación de atracciones de feria en el término municipal de Abanto Zierbena mediante la concesión de las correspondientes licencias de ocupación de vía pública y autorizaciones de actividades recreativas.

Por ello, sobre la base de los siguientes,

### FUNDAMENTOS DE DERECHO

- Ley 10/15 de 23 de Diciembre, de espectáculos públicos y actividades recreativas
- Ley 39/15 de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.
- Ley 33/2003, de 3 de noviembre, del Patrimonio de las Administraciones Públicas.
- Real Decreto 1372/1986, de 13 de junio, por el que se aprueba el Reglamento de Bienes de las Entidades Locales.
- Ley vasca 7/1994, de 27 de mayo, de la actividad comercial.
- Ordenanza Reguladora de las Tasas por ocupación del dominio público municipal.

### RESUELVO

**PRIMERO.-** Aprobar las condiciones generales para la instalación de atracciones de feria en el municipio de Abanto Zierbena, que son las que siguen:

(\* ) Honako dekretu honek ez du baliorik izango Alkatetzaren Dekretu eta Ebazpenen Liburuan erregistro-kutxatxori ez badu. Liburu hori Udal Idazkaritzan dago, ondore egokietarako./ El presente decreto no será válido si no lleva incorporado cajetín de inscripción de la misma en el Libro de Decretos y Resoluciones de la Alcaldía obrante al efecto en la Secretaría Municipal.

- Instalazio guztiek 3 m-ko distantzia errespetatu beharko dute etxebizitzetako fatxadetik, eta 2 m-ko distantzia beste atrakzio batzuekiko.
- Instalazio guztiek izan beharko dute ABC hautsezko su-itzalgailu bat, gutxienez 21A113B-C eraginkortasuna izango duena eta CO2-ko beste su-itzalgailu bat, 34B eraginkortasunekoa. Ez dira inola ere onartuko berrikuspen-data epez kanpo duten itzalgailuak (azken berrikuspenetik zenbatzen hasita, urtebete), ezta 20 urte baino gehiagoko itzalgailuak ere.
- Instalazio guztiek bete beharko dituzte dagozkien segurtasun-neurriak. Instalazioak funtzionamenduan jarri aurretik teknikari eskudunak emandako Segurtasun eta Muntatze Ziurtagiriaren bitartez egiaztatuko da baldintza horiek betetzen direla, konplexutasun tekniko handiegia edo instalazioen ezaugarriak direla-eta halakorik behar ez duten instalazioen kasuan izan ezik.
- Instalazio guztiek izan beharko dute baimendutako instalatzaile batek emandako instalazio elektrikoaren ziurtagiria.
- Debekatuta dago zoladura edo lurzoru naturala zulatzeko inongo elementurik ainguratzeko: instalazioak lurraren gainean jarrita egon beharko dira. Hori beteko ez balitz, kaltetutako eremua berrezartzeko, ondorioa edozein izanik ere, konpondu beharreko puntu bakoitzeko 2 m<sup>2</sup>-ko azaleraren baliokidea berrezartzeko beharra ekarriko du berekin.
- Debekatuta dago udal-instalazio eta -zerbitzuak manipulatzeko edo haietara sartzea Udalaren aurretiazko baimenik gabe.
- Instalazioak zoladura gogorraren gainean egin beharko dira. Baldin eta instalazioak partzialki edo osorik jartzen badira eremu berde batean, beren-beregi jaso beharko da Ingeñariaren Elkargoak ikus-onesitako muntatze-lanen ziurtagiria.
- Todas las instalaciones deberán respetar una separación mínima de 3m. con respecto a las fachadas de viviendas y de 2m. con respecto a otras atracciones.
- Todas las instalaciones deberán contar con un extintor de polvo ABC de eficacia mínima 21A113B-C, y un extintor de CO 2 de eficacia 34B. No se admitirán, en ningún caso, extintores cuya fecha de revisión esté fuera de plazo (1 año contado a partir de la última revisión), ni extintores con una antigüedad mayor de 20 años.
- Todas las instalaciones deberán reunir las debidas condiciones de seguridad, circunstancia que se acreditará mediante Certificado de Seguridad y Montaje expedido por técnico competente y previamente a su entrada en funcionamiento, salvo las de escasa complejidad técnica o las que no lo requieran por las características de sus instalaciones.
- Todas las instalaciones deberán disponer del Certificado de Instalación eléctrica, expedido por instalador autorizado.
- Se prohíbe perforar el pavimento, o terreno natural, para el anclaje de elemento alguno; todas las instalaciones deberán ir simplemente apoyadas en el suelo. En el caso de incumplimiento, la reposición de la zona dañada, cualquiera que haya sido la secuela resultante, conllevará la renovación de una superficie mínima equivalente a 2 m<sup>2</sup> para cada punto objeto de reparación.
- Se prohíbe la manipulación o acceso a cualquier instalación o servicio municipal, sin la previa autorización del mismo.
- Las instalaciones deberán realizarse sobre pavimento duro, en caso de realizarse parcial o totalmente sobre zona verde, deberá recogerse expresamente en el certificado de montaje visado por el Colegio de Ingenieros.



- Eremu berdeetan ez dira ez materialak ez instalazio osagarriak jarriko.
- Instalazioek ezin izango dituzte zuhaitzak inguratu, ezta baimendutako muntatze-lanetako edozein elementuren lotune edo euste-puntu gisa bankuak edo zuhaitzak erabili ere, ezta linea elektrikoak edo pankartak jartzeko edo egiturazko elementu gisa ere.
- Emakidadunak eraginpeko eremua garbitu beharko du behin baimendutako jarduera bukatutakoan.
- Emakidadunak bere gain hartu beharko ditu sor daitezkeen kalteak.
- Eskatzaileak bere gain hartu beharko ditu eragin daitezkeen gastuak, zergak eta prezio publikoak.
- Erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia egiteagatik tokiko jabari publikoa suntsitu edo kaltetu egiten denean, onuraduna, eragindako tasa ordaintzeko beharrari kalterik egin gabe, berreraikuntza- edo konponketa-gastuen guztizko zenbatekoa ordaintzera edo zenbateko hori deposituan jartzera egongo da derrigortuta. Kalteak konponezinak badira, suntsitutako ondasunen edo kaltetutakoen balioaren zenbateko baliokidea ordainduko zaio Udalari kalte-ordain gisa. Udalak ezin izango ditu atal honek aipatzen dituen kalte-ordainak edo ordainketak osorik edo partzialki barkatu.
- No se depositarán materiales, ni instalaciones auxiliares, en zona verde.
- No se podrán rodear árboles con las instalaciones, ni utilizar bancos ó arbolado como amarre o apoyo de cualquier tipo de elemento vinculado al montaje autorizado, ni como elemento de sujeción de tendidos eléctricos, pancartas, ni como elemento estructural.
- La concesionaría deberá proceder a la limpieza de la zona afectada, una vez finalizada la actividad autorizada.
- La concesionaría deberá asumir los posibles desperfectos que se originen.
- Los gastos, tributos y precios públicos que, en su caso, se ocasionen, serán a cuenta del solicitante.
- Cuando por la utilización privativa o el aprovechamiento especial se produzca la destrucción o el deterioro del dominio público local, el beneficiario, sin perjuicio del pago de la tasa a que hubiere lugar, estará obligado al reintegro del coste total de los respectivos gastos de reconstrucción y reparación o al depósito previo de su importe. Si los daños fueran irreparables, la entidad será indemnizada en cuantía igual al valor de los bienes destruidos o el importe del deterioro de los dañados. La entidad local no podrá condonar total ni parcialmente las indemnizaciones ni reintegros a que se refiere el presente apartado.

**BIGARRENA.-** Onestea udal-jabari publikoaren erabilera bereziko emakidak arautzen dituzten oinarriak, jaietan barraketako atrakzioak jartzeko. Eranskin gisa atxiki zaizkio oinarriok dokumentu honi.

**HIRUGARRENA.-** 2019ko zaindarien jaietarako eskabideak aurkezteko epeak zabaltzea. Honako hauek izango dira aurtengo jaiak:

- Las Carrerako jaiak: apirilaren 10etik 29ra, biak barne.
- Gallartako jaiak: apirilaren 24tik

**SEGUNDO.-** Aprobar las bases reguladoras de las concesiones de uso especial de dominio público municipal para la instalación de barracas de feria durante las fiestas del Ayuntamiento de Abanto-Zierbena, que se incorporan al presente Decreto como Anexo.

**TERCERO.-** Abrir los plazos de presentación de solicitudes para el año 2019 en cada una de las fiestas patronales, que serán los siguientes:

- Fiestas de las Carreras: entre los días 10 de abril al 29 de abril, incluidos.
- Fiestas de Gallarta: entre los días del 24

(\*) Honako dekretu honek ez du baliorik izango Alkatezaren Dekretu eta Ebazpenen Liburuan erregistro-kutxatxorik ez badu. Liburu hori Udal Idazkaritzan dago, ondore egokietarako./ El presente decreto no será válido si no lleva incorporado cajetín de inscripción de la misma en el Libro de Decretos y Resoluciones de la Alcaldía obrante al efecto en la Secretaría Municipal.

- maiatzaren 10era, biak barne.
- San Fuenteseko jaiak: maiatzaren 15etik maiatzaren 31ra, biak barne.

Lehiaketan parte hartzeko eskabideak eta agiriak HAZn aurkeztuko dira, jendaurreko ordutegian: 7:30etik 14:30era.

**LAUGARRENA.-** Oinarri arautzaileak, Udalaren kontratatzaile profileen eta iragarki-oholean argitaratzea, dagozkien ondoreak izan ditzaten.

Ebazpen honen testu osoa interesdunei jakinaraziko zaiela urriaren 1eko 39/2015 Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 40, 41, 42, 43 eta 44 artikuluetan jasotzen denaren arabera.

Abanto Zierbenako alkate-udalburuak agindu eta sinatu du, Abanto Zierbenako Udaletxean, erregistro-kutxatxoan adierazitako egunean, Udaleko idazkariaren aurrean.

ALKATEA-UDALBURUA / LA ALCALDESA  
MAITE ETXEBARRIA AZPIOLEA



- de abril al 10 de mayo, incluidos.
- Fiestas de Sanfuentes: entre los días 15 de mayo al 31 de mayo, incluidos.

Las solicitudes y documentación para tomar parte en el concurso se presentarán en el S.A.C., en horario de atención al público entre las 7:30 y las 14: 30 horas.

**CUARTO.-** Publicar las bases reguladoras en el perfil del contratante del Ayuntamiento y en el Tablón de anuncios, a los efectos oportunos.

El texto integro de la presente resolución se notificará en forma a los interesados, de conformidad con lo dispuesto en los artículos 40, 41, 42, 43 y 44 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Lo manda y firma la Sra. Alcaldesa en la Casa Consistorial del Ayuntamiento de Abanto Zierbena en la fecha señalada en el cajetín de inscripción, ante la Secretaria Municipal

IDAZKARI NAGUSIA / SECRETARIA GENERAL  
MARIA ELOISA GARCÍA FERNÁNDEZ